OSASUNA ETA MIGRAZIOA

Oztopoak gainditzeko gomendioak

Emakumeen mutilazio genitala, sexu-indarkeria eta genero-indarkeria prebenitzeko, antzemateko eta arreta egokia bermatzeko.



farmamundi

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gomendio hauek lantzeko orduan, **«Euskadin bizi diren emakume afrikarrek jasandako genero-indarkeria eta mutilazio genitala»** ikerlana hartu da oinarritzat. Cidalia aholkularitza-enpresak egin du 2026an Farmamundiren eskutik, **eta eLankidetza - Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak** finantzatu du.

Informazio gehiago : https://tatulotura.farmamundi.org/





BETEBEHARREN TITULARRENTZAKO GOMENDIOAK: ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

A. Osasun-sistemak indartzea

- Lehen mailako arretan, osasun sexualean, ugalketaren osasunean, osasun mentalean eta ospitaleko arretan, emakumeen mutilazio genitala (EMG) jasan duten emakumeak antzemateko, arreta emateko eta jarraipena egiteko berariazko protokoloak ezartzea.
- Kasu horiek bideratzeko zirkuitu argi eta irisgarriak bermatzea, EMG berreratzeko eta emakumeek aukera eskuragarriei buruzko informazio egokia jasotzen dutela ziurtatzeko.
- Osasun-arloko profesionalek EMGri, sexu-indarkeriari zein genero-indarkeriari (SIetaGI), traumari, kulturarteko ikuspegiari eta pertsona bera helburu duen arretari buruz duten etengabeko prestakuntza indartzea.
- Emakume bizirauleentzako arretan, ikuspegi biopsikosoziala kontuan hartzea, osasun fisikoa, osasun sexuala, ugalketaren osasuna eta osasun mentala integratzeko asmoz.
- Euskadiko Osasun Sistemak EMGri buruz Gomendatutako Jarduketen Gida berrikustea, eguneratzea eta aldian-aldian ebaluatzea.
- Lehendik zeuden aukera terapeutikoei buruzko informazio eskuragarria bermatzea, berreratzeko prozedurak, bideratzeko arreta ibilbideak eta lotutako laguntasun psikologikoa kontuan hartuta.
- Profesionalek pertsona bera helburu duten eta kulturaren aldetik behar bezalakoak diren arreta-ikuspegiei buruz daukaten prestakuntza indartzea, EMGrekin lotutako traumaren bizipen homogeneoa aurretik jakintzat jotzen duen erantzunik egon ez dadin eta entzunaldian, esperientzia subjektiboaren errespetuan eta emakumeen autonomian oinarritutako laguntasun prozesuak sustatu daitezen.

B. Babes-sistemak hobetzea eta eskubideak eskuratzea

- Emakume migratzaile eta errefuxiatuek euren eskubideei eta lehendik zeuden babes-baliabideei buruzko informazio eskuragarria jasotzen dutela bermatzea.
- Osasun, gizarte zein hezkuntza arloko eta arlo juridikoko zerbitzuen arteko koordinazioa indartzea, goiz antzemateko eta laguntasuna integrala izateko
- Instituzioen inguruko beldur eta mesfidantza faktoreak murriztea, informaziorako, laguntasunerako eta bitartekaritza kulturalerako estrategien bidez.
- Behar besteko prozedurak abian jartzea, arriskuan dauden neskatilak zein nerabeak babesteko, familien laguntza-bilaketa zailtzen duen hobe beharrezko eraginik sortu gabe.

Betebeharren titularrentzako gomendioak: administrazio publikoak

C. Prebenitzea eta arau sozialak eraldatzea

- EMGren eta SIetaGIren inguruan sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea komunitate migratzaileentzat, profesionalentzat eta herritar guztientzat.
- Gizon eta mutilentzako prebentzio-ekintzak sustatzea, EMG eta beste era bateko genero-indarkeriak desagerrarazteko prozesuan bete-betean inplikatu daitezen.
- Emakume afrikarren lidergopean, prebentzio komunitariorako eta aldaketa sozialerako ekimenak sustatzea.
- Genero-berdintasunari, sexu zein ugalketa arloko eskubideei eta indarkeriaren prebentzioari buruzko edukiak ezartzea hezkuntzarako prometan eta programa komunitarioetan.

D. Emakumeen autonomia eta ahalduntzea

- Gizarteratzeko eta laneratzeko programak indartzea emakume migratzaile eta errefuxiatu zaurgarrientzat.
- Bizitegi eta ekonomia arloko autonomiarako baliabideak eskuratzeko aukera sustatzea indarkeriako emakume bizirauleentzat.
- Emakume afrikarren benetako partaidetza bermatzea haiengan eragina duten politikak eta programak diseinatzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko orduan.
- Emakume bizirauleek euren komunitateetan bertan eraldaketarako eta prebentziorako eragile moduan daukaten zeregina aitortzea.

E. Ikerketa, jarraipena eta jakintzaren sorrera

- EMGri eta SIetaGIri buruzko informazioa biltzeko sistemak hobetzea, eskubideen eta datuen babesaren ikuspegia kontuan hartuta.
- Emakume kaltetuen ahotsak kontuan hartzen dituzten partaidetzazko ikerketak bultzatzea.
- Administrazio publikoen, unibertsitateen, gizarte-erakundeen eta erakunde komunitarioen arteko trukerako gune iraunkorrak suspertzea.
- EMG eta SIetaGI jasandako emakumeek osasuna, babesa eta ongizatea lortzeko duten aukerari buruzko berariazko adierazleak ezartzea
- EMG jasandako neskatilen eta nerabeen ebakuntza berreratzaileen inplikazio etiko, juridiko, sanitario eta psikosozialei buruzko berariazko ikerketak sustatzea, haurren eskubideen, baimen informatuaren eta mailakako autonomiaren ikuspegia kontuan hartuta



Erantzukizunen titularrentzako gomendioak: gizarte zibileko erakundeak, elkarteak,...

A. Informazioa, sentsibilizazioa eta prebentzio komunitarioa

- Kulturaren aldetik egokituta dauden sentsibilizazio-ekintzak garatzea EMGren, SIetaGIren eta emakumeen eskubideen inguruan.
- Elkarrizketarako gune seguruak sortzea, emakumeek esperientziak partekatu eta informazio fidagarria lortu dezaten.
- Lider komunitario eta erlijiosoekin lan egitea, EMG betebehar erlijiosoekin lotuta dagoela adierazten duten sinesmen faltsuak desegiteko.
- Aldez aurretik neskatila, nerabe eta emakume gazteentzako gune seguru bereiziak sustatzea, esperientziak eta zalantzak askatasunez adierazi ditzaten, beharrezko baldintza delako belaunaldi desberdinek maila beretik hitz egin dezaten.

B. Laguntasun integrala

- Laguntasun sozial, sanitario eta juridikorako zerbitzuak indartzea EMG eta SIetaGI jasandako emakumeentzat.
- Baliabide espezializatuak eskuratzeko aukera sustatzea orientaziorako eta bitartekaritzarako ekintzen bidez.
- Isolamendu soziala, menpetasun ekonomikoa edo zaurgarritasun larria antzematea eta laguntasuna ematea.
- Berdinen arteko laguntza-sareak eskuratzeko aukera sustatzea.

C. Emakumeen agentzia eta lidergoa indartzea.

- Emakume biziraulek banan-banan eta taldean ahalduntzeko prozesuak sustatzea.
- Emakume afrikarren partaidetza bultzatzea erreferente komunitario, bitartekari eta sentsibilizazio-eragile moduan.
- Komunitateetan bertan, elkarren arteko laguntzarako eta emakumeen lidergorako ekimenak bultatzea.
- Emakumeek eurek erresistentziarako eta eraldaketarako garatutako esperientziak



Erantzukizunen titularrentzako gomendioak: gizarte zibileko erakundeak, elkarteak...

D. Gizonekin eta familiekin egin beharreko lana

- Gizonak eta mutil gazteak prebentziorako eta eraldaketa sozialerako estrategietan kontuan hartzea.
- Gizontasun-eredu erantzukideak eta berdintasunezkoak sustatzen dituzten jarduerak garatzea.
- Neskatilen eskubideei, berdintasunari eta indarkeriaren prebentzioari buruz hausnartzeko guneak sustatzea familientzat.
- EMGtik eta SIetaGItik babesteko asmoz, gizonen erantzukidetasuna berariaz lantzea.

E. Eragina eta lankidetza instituzionala

- Komunitateek eta emakume parte-hartzaileek antzemandako oztopoen berri ematea administrazio publikoei.
- Osasunarekin, berdintasunarekin, migrazioekin eta babesarekin lotutako koordinazio instituzionalerako guneetan parte hartzea.
- Kaltetutako emakumeen premiei buruzko jakintza eta nabaritasuna sortzen laguntzea.
- Erakunde komunitarioen, erakunde espezializatuen eta zerbitzu publikoen arteko aliantzak suspertzea, lehendik zeuden erantzunak hobetzeko.



OSASUNA ETA MIGRAZIOA

Euskadin bizi diren emakume afrikarrek jasandako
genero-indarkeria eta mutilazio genitala



tatu lotura

tatulotura.farmamundi.org